

1- Entzun aurretik




1.1 Igande pausoz esamoldeaz

Zer datorkizu burura “igande pausoz” esapidea entzun edo irakurritakoan? Gaurko atalaren izenburua dela jakinda, zeren harira erabiliko dute protagonistek moldea, zure ustez?

adb: Nik uste dut igandetan egiten diren gauzei buruz arituko direla, esaterako: goiz-buelta egin, familiarekin bazkaldu, zinemara joan, etxeko sofan etzanda arratsaldeko film penagarriak ikusi, musika entzun...

Orain, ikusi "Irudi mintzatuaren hiztegi poetikoa" webguneko [bideoa](#) eta jaso bertan esaten dutena. Ondoren, alderatu zure deskribapenarekin. Hurbildu al zara definizio horretara?



Joseba Sarrionaindia idazlearen *Lagun Izoztua* liburutik ateratako esamoldearen arabera, “igande pausoz”, zera da:



1.2 Partekatu zuen definizioak

Alderatu ikaskidearekin aurreko ariketetan egindakoa eta bakoitzarentzat “igande pausoz” zer den azaldu elkarri.

2- Entzun bitartean

2.1 Aukeratu egokia

Orain, entzun elkarrizketa eta aukeratu Jonerentzat "igande pausoz" zer den. Partekatu erantzun duzuna ikaskidearekin eta aurreko definizioekin bat ote datorren komentatu.

- Pertsona aberatsengatik esaten zuen bere aitona patxadaz ibiltzen zirela beti, ez bakarrik abiadurari dagokionez
- Igandetan ohikoak diren gauzak egiteari buruz: mendira joan, paseatzera irten...
- Presarik gabe ibiltzea lanera joan aurretik
- Besterik: _____

2.2 Gosaritan



Bikotearen gosaria irudikatzeko tarte hartuko duzu: Aukeratu zerrendatik behar dituzun hitzak eta osatu egoeraren deskribapena. Ondoren, alderatu egin duzuna ikaskidearekin.

prestatu / zuku / goiz / iratzargailu / ohe / marmota-itxura / gosari / presaka / igande / apar / larritasun

Egunero bezala, iratzargailuak goiz jo du, baina gaur...



2.3 Joneren bizitzaz

Jonek bere iraganeko bizitzari buruzko xehetasunak eman dizkio Joni gosaltzen ari ziren bitartean. Entzundakoaren arabera, adierazi beheko esaldiak egia ala gezurra diren, eta gezurra direnak zuzendu. Partekatu erantzuna ikaskidearekin.

✓	✗	
		Jone eta bere senar ohia bolada batez bizi izan ziren gaur egun bera bizi den pisuan, baina haurra izan ondoren, hiri kanpoaldeko elkarri atxikitako etxe batera aldatu ziren.
		Oskarrek Vanessa ezagutu zuen garaian hiri kanpoaldeko etxean bizi ziren.

		Bizilagunen arteko harremana izatea gustukoa du Jonek. Horregatik da pisuan bizitzearen aldekoa.
		Joneri iruditzen zaio Vanessa izan zela bera eta Oskarren arteko harremana pikutara joan izanaren errudun bakarra.
		Oskarren ondoren lagun gehiago izan bazituen ere, horietako inor ez zen ezer serioa izan Jonerentzat.
		Joni oso ondo sentiarazi dio jakiteak Jonek harreman luzeak izan dituela berarekin egon aurretik.

3- Entzun ondoren

3.1 Bizitza interesgarriak



Joneren bizitzari buruz zerbait gehiago ezagutu duzu gaurko atalean. Zuk zeuk zer kontu dezakezu zureari buruz?

Bi proposamen dituzu segidan elkarrizketa moduan egiteko. Aukeratu bat:

1. Zuen bizitzari buruzko informazioa eman elkarri:

- Prestatu galderak zure ikaskideari buruz jakin nahi duzuna ezagutzeko
- Elkarrizketa egin elkarri
- Kontatu gainerako ikaskideei jaso duzun informazioa



2. Pertsona ezagun bati buruzko informazioa eman elkarri:

- Nahi izanez gero, pertsona ezagun bat izango bazina bezala erantzun dezakezu. Kontsulta egin, esaterako, ikasbileko biografiak eta aukeratu gustuko pasadizoren bat. Hemen hainbat adibide: [David Bowie](#), [Mikel Laboa](#), [Eduardo Txillida](#), [Fernando Amezketarra](#)...
- Elkarrizketaren ondoren, ikaskideak asmatu behar du nor zaren
- Azkenik, partekatu zuen pertsonaiari buruzko informazioa gainerako ikaskideekin



Idea hartzeko, segidan dituzu Jonek Joneren bizitzari buruz gehiago jakiteko erabilitako hainbat galdera:

- *Aizu, Jone, zure ex-arekin pisu honetan bizi zinen?*
- *Eta ez zizun penarik eman etxe hartan bizitzetik, pisu batean bizitzera pasatzeak?*
- *Vanessa bizilaguna zen?*
- *Eta zuk, Oskarren ondoren, izan al zenuen beste lagunik?*
- *Eta zenbat? Batzuk esku batekin zenbatu daitezkeenak edo batzuk autobus batean kabitzen ez direnak?*
- ...